



LABURPEN EXEKUTIBOA

Hernanik **energia-eredu berri baterantz** aurrera egiteko konpromisoa indartu du, Energiaren eta Klimaren aldeko Alkateen Itunak definitutako esparru berriarekin bat etorritz; itun horrek 2030. Urtera arte luzatzen du denbora-muga, eta ituna sinatzen duten erakunde berriei beren CO2 emisioak % 40 murrizteko eta klima aldaketa arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko plangintza-esparrua prestatzeko konpromisoa eskatzen die. Gainera, gastu publiko murrizteko beharra nagusi den testuinguruan, Udalak energia-eskaria murriztearen eta baliabideen eraginkortasunaren eta zentzuzko erabileraren aldeko apustu irmoa egiten du. Hori guztia, ingurumenari eta gastu publikoa murrizteari dagozkion irizpideez gain, tokiko energia-ereduaren dimentsio soziala ere kontuan hartuta.

Konpromiso hori **Energia Jasangarriaren Udal Plan (EJUP) batean** islatzen da; plan horrek

eragina du etxebizitzaren eta zerbitzuen sektoreetan, garraioaren, hondakinen eta uraren sektoreetan, bai eta udal administrazioaren sektorean bertan ere, funtsezkotzat jotzen baita azken horrek duen eginkizun eredugarria.

Plan horri esker, udalerrriak **Europar Batasunak 2030erako ezarritako helburuetatik harago** jo ahal izango du; udalerrriaren lurralde-eremuan **% 40,2 murriztuko dira** CO2 emisioak, **2030. urterako**.

Udalerrriaren energia-balantzea

Udalerrriaren energia-balantzearen analisiak erakusten du pisu nabarmena duela industria-sektoreari dagokion energia-kontsumoak (% 53); hori bat dator udalerrriaren egitura ekonomikoarekin. Sektore hori honako Planaren irismenetik at dagoenez, **aztertutako sektoreek udalerrriaren energia-kontsumoaren % 47 hartzen du**; udalerriko energia-kontsumoen ia erdian eragiteko gaitasuna ematen dio horrek Planari.

Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, **garraioen sektorea dela udalerraren energia-balantzean pisu handiena duena** (% 31) eta, ondorioz, Ekintza Planean arreta berezia eskaini beharrekoa, **etxebizitzan eta zerbitzuen** sektoreak ahaztu gabe; azken bi horiek, pisu erlatibo txikiagoa duten arren, esku hartzeko marjina handia eskaintzen dute, eta funtsezkoak dira eskaria murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko politikan.

Bestalde, **Udalaren kontsumoa 2015ean EJEJ esparruko kontsumoaren % 2,5 eskas da.** Gainerako sektoreekin alderatuta pisu txikia duen arren, garrantzi handia ematen zaio, **eredutzat** duen ahalmenagatik eta **gastu publikoa aurrezteko** komenigarritasunagatik. Hain zuzen ere, udalaren egoitzetako eta argiteria publikoaren energia-eraginkortasunak faktura elektrikoaren murrizpen handia dakar.

Horregatik, **UEJP** plana prestatzerakoan, egokitzen jo da **Udalaren energia-fakturazioaren berriazko analisia** egitea; horri esker, hobeto ezagutu ahal izan dira eraikinen eta argiteria publikoko kutxen energia-kontsumoak eta berotegi-efektuko gasen emisioak eta, aldi berean, hornikuntzen kontratazioa optimizatuta lor daitezkeen aurrezpenak identifikatu dira.

Udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioen balantzea

Udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioak 92 milioi tona CO_{2eq}-koak izan ziren 2015ean; horrela, % 0,5 eskaseko murrizpena gertatu zen 2010. urtearekiko. Balio hori **-biztanleko 4,7 tCO_{2eq}-koa-** EAEkoa baino pixka bat txikiagoa da, Euskadiko 2014ko (urte horretakoak dira dauden azken datuak) berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioaren arabera (4,8 tCO₂·eq/bizt.).

Murrizpen hori **hondakinen** tratamenduarekin lotutako emisioak (% 50,8 gutxiago) eta **etxebizitza** sektorekoak (% 24,3 gutxiago) gutxiago sortzetik dator batez ere.

Puntu honetan, eten txiki bat egitea komeni da, **berotegi-efektuko gasen emisioak arintzeko hondakinen udal politikak duen garrantzia** sakonago aztertzeko, kontuan hartuta hondakinen klima-aldaketan duten eragina hondakinen azken tratamenduarekin zuzenean lotuta dagoela eta, tratamendu hori, aldi berean, **frakzio bakoitzaren arabera** dela.

2010ean **hondakinak atez ate biltzeko sistema** ezarri izanari esker, handitu egin da **gai organikoen** bilketa batez ere -aurreko sistemarekin ez zen biltzen-, baina baita **ontzi arinena** ere -aurreko sistemarekin edukiontzian biltzen zen-, eta % 50 hazi da. Beraz, gaur egun zabortegira ez doan gai organiko kopuru handia dago eta, ondorioz, gai kopuru handi horrek ez du metanorik sortzen (gas horren berotze globaleko gaitasuna CO₂

gasarena baino 25 aldiz handiagoa da) eta, gero eta ontzi portzentaje handiagoa itzultzen da kontsumo-zirkuitura eta, beraz, ia ez dute emisiorik sortzen. Horrekin guztiarekin, esan dezakegu hondakinak biltzeko sistema berriari esker, **sektore horrekin lotutako berotegi-efektuko gasen emisioak erdira (50,8%) murriztu direla**

Agerian geratzen da, beraz, gaikako bilketaren hobekuntzaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizpenaren arteko erlazioa, eta gai organikoen konpostajearen oinarritutako hondakinen prebentzioaren aldeko apustua berez dela klima-aldaketa arintzeko estrategia bat.

2030erako joera-agertokia eta Energia Jasangarriaren Udal Plana

EJUP planaren esparruan, 2030ean udalerririk izango dituen berotegi-efektuko gasen emisioen proiektzioa egin da, biztanleriaren eta ekonomiaren bilakaera eta beste faktore garrantzitsu batzuk kontuan hartuta; hala nola, Euskadin sortuko diren energia berriztagarriak, ibilgailuen edo etxeko elektratasunen eraginkortasunaren hobekuntzak, eta airea girotzeko sistemen errendimenduaren hobekuntzak.

Aldagai horiek eta udalerririk mailan beste neurri gehigarriak ez dela hartuko kontuan izanda, zenbatetsi da berotegi-efektuko gasen emisioak % 6 haziko liratekeela dauden azkeneko

datuekiko (2015ekoak), eta % 5 oinarrizko urtearekiko (2010).

Ekintzak zehaztea

Ekintza Plan bat formulatu da, ildo estrategikoen arabera banatutako **85 neurri** jasotzen dituena. Ekintza horiek definitzeko, kontuan hartu da sektore guztietan jardutea (Udala, etxebizitzak eta zerbitzuak), bai eta ahal den esku-hartze ildo guztietan ere (eskaria murriztea, energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak, mugikortasuna, hondakinak eta ura).

Proposatutako neurriak betez gero, simulazio-ereduan ikusten da berotegi-efektuko gasen emisioak % 40,2 murriztuko direla 2030erako, ezarritako oinarrizko urtearekin (2010) alderatuta; horrela, Energiaren eta Klimaren aldeko Alkateen Itunak ezarritako helburua (% 40 murriztea emisioak) gainditu egingo litzateke pixka bat.

Mugikortasunari dagokion ildo estrategikoa da **berotegi-efektuko emisioak murrizten gehien laguntzen duen** ildo; izan ere, EJUP planaren bitartez murriztutako emisio guztien % 76 sektore horri dagokio. Eta hori bat dator sektoreak gaur egun emisioen banaketan duen pisuarekin, mugikortasunarena baita pisu handiena duena. Horretarako, Mugikortasun Plan berria ezarriko da; aurreikusten da epe laburrean ekingo zaiola plan hori lantzeari.

Energia berriztagarrien ildoak da bigarrena berotegi-efektuko gasen emisioen murrizpenean ildoek duten eraginari dagokionez (% 14ko murrizpena); hori bat dator erregai fosilekiko gero eta mendekotasun txikiagoko energia-subiranotasuneko eredu baterantz jotzeko beharrarekin.

Jarraian, energia-eraginkortasunaren (-% 6) eta eskaria murriztearen (-% 4) ildoak daude; bi horiek aurrekoek baino pisu txikiagoa duten arren berotegi-efektuko gasen emisioen murrizpena lortzen laguntzeari dagokionez, bereziki garrantzitsuak dira. Energia-ekoizpenaren eskaintza kudeatzeko politikei baino, lehentasuna eskaria kudeatzeko politikei ematen laguntzen duten neurriak dira; gai horri garrantzi

handia eman zaio Planaren kontzeptualizazioan.

Era berean, ikus daiteke, hondakinen eta uraren ildoek eragin txikiagoa dutela aurreko kasuekin alderatuta. Horren arrazoia da bi ildo horiek, balio absolutuak zein erlatiboak kontuan hartuta, murrizpena hobetzeko marjina askoz txikiagoa dutela. Azkenik, esan behar da Plan honek bestelako onurak ere ekarriko dizkiola Hernaniri, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteaz eta faktura elektrikoan aurrezteaz gain; adibidez, airearen kalitatea eta hiri-espazioaren segurtasuna hobetuko dira, nabarmen hobetuko dira etxebizitzetako eta ekipamendu publikoetako erosotasun-baldintzak ere, eta berdintasun sozial handiagoa lortuko da.

Jarraian, UEJPren 85 neurrien eskema aurkezten da:

1. ILDOA: ESKARIA MURRIZTEA	
SEKTORE A	NEURRIAK
Udal ekipamend uak	<p>1.1.1 Argiteria kontrolatzeko eta erregulatzeko sistemak hobetzea, pizte-kontrolerako gailuak erabilia eta lineak sektoretan banatura</p> <p>1.1.2 Eraikinen inguratzaille termikoak hobetzea, eta neurri bioklimatikoak, aireztapen naturala eta eguzki-babesak jartzea, berotzea ekiditeko eta hozteak dakartzan kontsumoak murrizteko</p> <p>1.1.3 Leihoen eta pertsiana-kutxen inguratzailleak eta itxiturak hobetzea, infiltrazioak eta bero-galerak saihesteko</p> <p>1.1.4 Egungo garbiketa-kontratuan edo kontratu berrietan, garbiketako langileen jardunbide egokiak sartzeko, berogailuaren eta argiztapenaren kontrolari dagokionez.</p> <p>1.1.5 Eraikin guztietarako Energia-kudeaketarako software bat ezartzea, energia-kontabilitateari eta fakturei buruzko informazioa sartzeko aukera ematen duena. Energia-kontsumoaren eta -kontabilitatearen gaineko kontrola egitea.</p> <p>1.1.6 Energia-kudeaketa Aurreratuko plan bat ezartzea, berariazko erabileren energia-monitorizazioko datuekin lotutako Jardunbide Egokiko Protokoloen bitartez.</p> <p>1.1.7 Kontsumo handiena duten eraikinetan energiaren telekudeaketa-sistemak ezartzea. Galdara eta banaketa-sistemak optimizatzea, etengabeko hobekuntzarako algoritmoetatik eta urrutitiko jarduketetatik abiatuta.</p> <p>1.1.8 Euronet 50/50 ekimena martxan jartzea, udalerriko ikastetxeetan energia-aurrezpena sustatzeko</p>

1. ILDOA: ESKARIA MURRIZTEA

SEKTORE A	NEURRIAK
Etxebizitzak	<p>1.2.1 Hiriko hiri-garapen berrietan energia eraginkortasun handiko irizpideak ezartzea.</p> <p>1.2.2 Garatuko diren etxebizitza publikoetan (eraikuntza berrikoak edo birgaitze integralekoak) A mailako energia-ziurtapena lortzea</p> <p>1.2.3 Etxebizitzen birgaitze partzialetan energia eraginkortasunezko irizpideak sartzea.</p> <p>1.2.4 Dauden etxebizitzetan, pixkanaka, egungo leihoen ordez eraginkortasun handiagoko leiho berriak jartzea.</p> <p>1.2.5 Herritarrei zuzendutako ingurumeneko informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatzea, energia kontsumo arduratsuekin lotuta.</p> <p>1.2.6 Energia arloko sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatzea, Eskolako Agenda 21 estrategiaren barruan.</p> <p>1.2.7 Etxebizitzak berritzailekoan, energia eraginkortasun handiko irizpideak kontuan hartzea, EKTak definitutako gutxiengoak baino murriztaileagoak.</p> <p>1.2.8 Etxebizitza bakoitzaren kontsumoa kalkulatzeko eta alderatzen duen aplikazio bat ezartzea, aurrezteko aholku pertsonalizatuak sortuko dituen eta, halaber, energia-pobreziaren aurka borrokatzeko politika publikoen kudeaketa erraztuko duena.</p> <p>1.2.9 Energia-pobreziak udalerriko etxebizitzetan duen eragina aztertzea, eta egoera arintzeko neurriak hartzea.</p>
Zerbitzuak	<p>1.3.1 Energia kudeatzeko IKT teknologian oinarritutako sistemak sartzea, energia kontsumoa ezagutzeko, erabileran aurrezteko neurriak aplikatzeko eta horien eragina ebaluatzeko aukera emango dutenak.</p> <p>1.3.2 Prestakuntza-programa bat egitea, hirugarren sektoreak energia-eraginkortasunari dagokionez izan behar duen erantzunkidetasuna sustatzeko.</p> <p>1.3.3 Hirugarren sektoreko energia aurrezpenerako eta eraginkortasunerako neurriak jasotzen dituzten hainbat komunikazio-material prestatzea.</p>

2. ILDOA. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

SEKTORE A	NEURRIAK
Udala (udal ekipamenduak)	<p>2.1.1 Eraikinetako eraginkortasun txikiko lanpara eta argien ordeztan LED teknologiadun eraginkortasun handieneko beste batzuk jartzea</p> <p>2.1.2 Beroa igortzen duten elementuen eraginkortasuna hobetzea, balbula termoestatikoetara erregulatuta eta banaketa-hodien isolamenduetan hobekuntzak eginda.</p> <p>2.1.3 Berokuntza-sistemen erregulatzeko gaitasuna handitzea, berokuntza-sistemaren Zonifikazioa hobetuko duten elektrobalbulak jarrita.</p> <p>2.1.4 Berokuntza-sistema erregulatzeko gunea jartzea, zirkuitu bakoitza barne-termostato bidez kudeatuko duena eta eskariaren iragarpena egingo duena, kanpoko tenperatura-zunda bidez</p> <p>2.1.5 Galdera eta hozte-sistema zaharrenak eta eraginkortasun txikikoenak berritzea, eta horien ordeztan erabilgarri dauden teknologia eta ekipo berrienak jartzea.</p>
Udala (Argiteria publikoa)	<p>2.1.6 Argiak eta lanparak LED teknologiadun lanpazekuek ekipatutako argi berriez ordeztzea.</p> <p>2.1.7 Erloju astronomikoen eta aurrezpen-gailuen pizte-programazioa aldatzea.</p> <p>2.1.8 Kontrol-sistema aurreratuak jartzea, argiteria publikoa kudeatzeko eta automatizatzeko.</p> <p>2.1.9 Herritarrei zuzendutako aplikazio bat garatzea, herritarren eta argiteria publikoa kudeatzen duten Udaleko eta/edo kanpoko zerbitzuen arteko norabide bikoitzeko komunikazio-kanala ezartzeko.</p>
Etxebizitzak	<p>2.2.1 Pixkanaka, eraginkortasun txikieneko etxekeko elektratasunen ordeztan A mailako edo goragoko mailako elektratasuna berriak jartzea.</p> <p>2.2.2 Lanpara gorriak eta halogenoak LED teknologiadun lanpara berriez ordezkatzeko neurria orokortzea.</p> <p>2.2.3 Galdara indibidual zaharren ordeztan, kondentsazioko galdara berriak jartzea.</p> <p>2.2.4 Instalazio elektriko zaharrak berritzea.</p> <p>2.2.5 Isolatutako bizitegi-eremuetan bero-sistema zentralizatuak jartzea, District Heating sistemaren bitartez.</p>

2. ILDOA. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

SEKTORE A	NEURRIAK
Zerbitzuak	<p>2.3.1 Berogailurako eta ur berorako galdarak berritzea, eraginkortasun handiko galdarak jarrita.</p> <p>2.3.2 Komertzioetako barruko argiztapena berritzea, eraginkortasun handiagoko teknologiekin.</p> <p>2.3.3 A erako ziurtagiriak edo zero emisioko balantzedun eraikinak lortzea eraikuntza berrietan edo zerbitzu jardueretara bideratutako birgaitze-lanetan.</p>

3. ILDOA. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

SEKTORE A	NEURRIAK
Udala (udal ekipamenduak)	<p>3.1.1 Udalaren Energia-subiranotasuna bultzatzea, autokontsumorako Eguzki-energia Fotovoltaiko bidezko argindar-ekoizpenerako sistemak jarrita.</p> <p>3.1.2 Eguzki-energia Termikoa Ur Berorako eta klimatizazioari laguntzeko aprobeztatzeko sistemak jartzea.</p> <p>3.1.3 Eraikuntza berriko eraikin publikoetan beroa sortzeko biomasa-sistemak eta/edo klimatizazio geotermikoko sistemak sartzeta.</p> <p>3.1.4 Ibilgailu Elektrikoak birkargatzeko guneak jartzea, eguzki-energia fotovoltaikoarekin eta bateriekin</p> <p>3.1.5 Argindar Berriztagarria Sortzeko jarduerari ekitea, Udalaren Energia-trantsizioa bultzatuz, Energia Elektrikoa sortzeko zentral minihidraulikoa erosituta</p> <p>3.1.6 Herritar eta enpresen Sostengurako Udal Bulegoa sortzea, Energia Berriztagarrien proiektuak finantzatzeko eta, energia berriztagarriak eta kooperatibismoa sustatzen dituzten merkaturatzaileak sustatuz, energia-hornikuntzak kontratatzeke laguntzak kudeatzeko (EVE, IDAE, Europa...).</p> <p>3.1.7 Argindarra Kontratatzeke Pleguetan energia % 100 iturri berriztagarrietatik datorrela ziurtatzen duen Ziurtagiria sartzeta eskakizun gisa, eta Merkaturatzaileak Ekonomia Sozialeko irizpideekin baloratzea.</p>
Etxebizitzak	<p>3.2.1 Udallerriaren Energia-subiranotasuna bultzatzea, autokontsumorako Eguzki-energia Fotovoltaiko bidezko argindar-ekoizpenerako sistemak jarrita.</p> <p>3.2.2 Tenperatura txikiko eguzki-energia kaptatzeko eta biltegitatzeko sistemak ezartzea sustapen berrietako etxeko ur beroaren eskariaren % 40 estaltzeko, eta dagoeneko dauden etxebizitzetan ere sistema horren presentzia areagotzea.</p> <p>3.2.3 Biomasa bidez beroa sortzeko sistemen ezarpena handitzea bizitegi-sektorean.</p> <p>3.2.4 Udallerrian energia elektriko fotovoltaikoko autokontsumoko kooperatibak martxan jartzen laguntzea</p> <p>3.2.5 Herritarrak % 100 iturri berriztagarrietatik datorren energia elektrikoa kontratatzerara bultzatzea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko merkaturatzaileen bitartez.</p>

3. ILDOA. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

SEKTORE A	NEURRIAK
Zerbitzuak	<p>3.3.1 Udalerriaren Energia-subiranotasuna bultzatzea, autokontsumorako Eguzki-energia Fotovoltaiko bidezko argindar-ekoizpenerako sistemak jarrita azalera handiko eraikinetan (industrialdeak, merkataritza-guneak...)</p> <p>3.3.2 Zerbitzuen sektorean tenperatura txikiko eguzki-energia antzemateko eta biltegitratzeko sistemak jartzea.</p> <p>3.3.3 Biomasa bidez berotasuna sortzeko sistemak jartzea, berogailuko eta ur beroko kontsumo handiko eraikin komertzialetan.</p> <p>3.3.4 Udalerriko enpresak, industriak eta komertzioak % 100 iturri berriztagarrietatik datorren energia elektrikoa kontratatuzera bultzatzea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko merkaturatzaileen bitartez.</p>

4. ILDOA. MUGIKORTASUNA

SEKTORE A	NEURRIAK
(Ibilgailu-flota) Udala	4.1.1 Ibilgailu elektrikoa sartzea Udalaren eta enpresa emakidadunen ibilgailu-flotetan 4.1.2 Bizikleta elektrikoa sartzea Udalaren eta enpresa emakidadunen ibilgailu-flotetan 4.1.3 Udalerako Mugikortasun Jasangarriko Plana prestatzea eta ezartzea.
Udalerria	4.2.1 Udalerrirako Hiri-mugikortasun Jasangarriko Plan (HMJP) berria diseinatzea eta prestatzea. 4.2.2 Oinezkoen mugikortasuna hobetzeko eta bultzatzeko programa bat ezartzea. 4.2.3 Bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzeko eta bultzatzeko programa bat ezartzea. 4.2.4 Garraio publikoa bultzatzeko programa bat bultzatzea. 4.2.5 Ibilgailu pribatuaren eta salgaien garraioaren Baketze- eta kudeaketa-programa bultzatzea. 4.2.6 Lantokietara joateko garraio-planak diseinatzea eta ezartzea 4.2.7 Mugikortasun jasangarriaren inguruko prestakuntza-, heziketa- eta laguntza-programa bat ezartzea. 4.2.8 Emisio gutxiko ibilgailuak bultzatzea 4.2.9 Ibilgailu elektrikoen erosketa indartzea herritarren eta enpresen artean

5. ILDOA. HONDAKINAK

SEKTORE A	NEURRIAK
Udala	<p>5.1.1 Ingurumen-irizpideak sartzeari ondasun eta zerbitzuen erosketan eta kontratazioan</p> <p>5.1.2 Udal bulegoetan paper- eta ontzi-hondakinen sorkuntza murriztea</p> <p>5.1.3 Hondakin sorkuntzaren prebentzioan erantzunkidetasuna bultzatzea Udaleko langileen artean</p> <p>5.1.4 Bide-garbiketako hondakinen kudeaketa hobetzea</p>
Residencial	<p>5.2.1 Produktu higieniko xurgatzaileen birziklapena bultzatzea</p> <p>5.2.2 Bio-hondakinen konpostajea bultzatzea, konpostaje komunitarioaren eta etxeke konpostajearen bitartez, eta hondakin horren kudeaketarako ildo berriak erabilita</p> <p>5.2.3 Eskudun organismoek ontzien eta bilgarrien araudia azter dezatela eskatzea</p> <p>5.2.4 Elikagaien erosketa eta kontsumo arduratsua sustatzea</p> <p>5.2.5 Erabilitako gaien eta gauzen berreskurapena, konponketa, eraberritzea eta salmenta sustatzen jarraitzea</p>
Zerbitzuak	<p>5.3.1 Elikagaien zarrastelkeria saihestea, komertzioetan eta zerbitzu-establezimenduetan (ostalaritza, egoitza geriatrikoak, ikastetxeak, etab.)</p> <p>5.3.2 Ikastetxeetan materialen berrerabilpena sustatzea</p> <p>5.3.3 Gertaera eta ekitaldietan hondakinen prebentzioa bultzatzea</p>

6. ILDOA. URA

SEKTORE A	NEURRIAK
Udalerria	6.1.1 Ur-hornikuntzako sarearen sektorekako banaketa osatzea 6.1.2 Ihesbideak antzematea eta murriztea 6.1.3 Zenbatu gabeko kontsumoak kontrolatzea
Udala	6.2.1 Udal bulegoetako ur-kontsumoa kontrolatzea 6.2.2 Ura aurrezteko sistemak jartzea, ur-kontsumoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasuna handitzeko 6.2.3 Tratatu gabeko ura erabiltzea, ureztatzeko eta bideak garbitzeko
Etxebizitzak	6.3.1 Etxebizitza sektorean ur-kontsumoa murriztera bideratutako jardunbide egokiei buruzko informazio-kanpainak egitea
Zerbitzua k	6.4.1 Zerbitzuen sektorean ur-kontsumoa murriztera bideratutako jardunbide egokiei buruzko informazio-kanpainak egitea.

